# ABEŔIAREN UDABEŔIA

URTEORO, oŕbelaren kraskada geure oinpean lenbizi nabaitzean, eta oŕbel oŕekin osto oŕlegia galdu duan zuaitza goŕitzen dijoala ikusfian, bat-batez nabaitu oi degu gure biotzian berau zerbait illuntzen duan naigabe txiki bat; ustekabe soŕtu zaigun itun bat; gure gogo-alaitasuna itzali nai duan atsekabe bat; eta da, zapaldu degun oŕbelak, goŕitua arkitu degun zuaitzak, une bertan neguaren itxura gogoŕa burura dakaŕkigutelako; udarak gugan soŕtu zuan pozak il beaŕ duela igaŕtzen degulako; eta biotza makaldu, bilduŕtu egiten zaigu...

Albiztari gogoŕa udazkena. Nor ez da beronen beŕiaz izutzen eta makaltzen ez dana, baldin udabeŕian izadia margo beŕia, eta alaitasun zoragaŕiz ikusita poztu izan ba-da beintzat?

Baña udazken-aro ontan bai-degu egun bat, udabeŕiak izadia bezela, abeŕtzalien biotzak erne beŕiz, margo garbiz eta alaitasunez beŕbizten duana: Arana-Goiri'taŕ Sabin gogoratzen digun eguna. Gure auŕian jeikitzen da bat-batez Irakaslearen notintasuna, neguaren gogoŕtasunak il-zoriyan ipiñi zuan Abeŕia bizitz beŕi batera ernaitzen; Azkatasun-eguzki-izpi beroz aŕotz-lañoak ayenatzen; zoildu eta gogoŕtuta zegon euzko-gogoa itxaŕtu eta erne-beŕitzen; eta ikuskizun zoragaŕi onek euzko zindo oroen biotza ikutzen du, eta indaŕ beŕi bat bere gogoan nabaitzen du...

Nor ez da Sabin'en oroimenaz bere biotza indaŕ beŕiz jeikitzen

nabaitzen ez duana, Jainkoa'k gure Abeŕiari alako seme bat eman izanaz pozten ez dana, baldin aŕotz-izotz gogoŕak, neguaren zigoŕ zitalak, abeŕiaren gain ezaŕi duan samiñak mindu izan ba-du beintzat?

¡A..! Sabin'en oroimena pozkaŕi da abeŕtzale dan oroen biotzian. Berak indaŕtzen gaitu euzko-gogua ernaitzen alegintzeko; gure guzia gaizkatzen lantzeko; ekaitz guzien auŕka zutik irauteko...

Udazkeneko egun aundi oi: ¡Zu zera Abeŕiaren udabeŕia!

TENE.

